

1975 - 2015



EDIZIOA / EDICIÓN

IKUSLEA IKUSGAI

EL ESCENARIO
ES VUESTRO





IKUSLEAK, 40. EDIZIOAREN PROTAGONISTA

Bere iragana gogora ekartzeko baliatu nahi izan du Nazioarteko Antzerki Jaialdiak 40. edizio hau, eta horrenbeste urtez sostengua eman dioten ikusleei protagonismoa emateko, dimentsio berri bat aitortzeko.

Gorabeherarik izan badu ere, inoiz baino biziago dago jaialdia. Berrituz eta eguneratuz joan bada ere, eutsi egiten die hasierako helburu haiei: antzezte arteen estatuko naiz nazioarteko joera abangoardisten erakusleho izatea; antzerkian parte hartzen duten eragileentzako topagunea eta eztabaida-lekua izatea, eta ikusleei ahalik eta protagonismo handiena ematea.

Jaialdiaren edizio honetan beste pausu bat eman nahi da, modu aktiboan murgilarazi bertan beren presentziarekin berrogei urte betetzea posible egin duten pertsona horiek guztiak. Inflexio-puntua izan nahi du, aurrerantzean ikusleek paper kualitatibo handiagoa joka dezaten.

Europar abangoardiako obra handi batekin hasiko da aurten go edizioa: Samuel Becketten «Krapp's last tape» [Krappen azken zinta], Europako abangoardiako antzerki-zuzentzaile nabarmenetako batek, Peter Stein-ek zuzendua. Benetako ohorea izango da Klaus María Brandauer —Urrezko Globo baten jabea, Memorias de Africa filmarengatik— ikustea agertokian, Espainian estreinakoz emango den lan handi hori antzetzten.

EL PÚBLICO, PROTAGONISTA DE LA 40 EDICIÓN

El Festival Internacional de Teatro ha querido aprovechar su 40 edición para poner en valor el pasado del festival y dar protagonismo al público que lo ha sustentado durante estas cuatro décadas, otorgándole una nueva dimensión.

El festival sigue más vivo que nunca. Insiste de forma renovada y actual en los objetivos que motivaron su creación: ser un escaparate de las tendencias más vanguardistas de las artes escénicas nacionales e internacionales; ser un lugar de encuentro y debate de los agentes que intervienen en el teatro y dar el máximo protagonismo al público.

En esta edición el festival pretende dar un paso más e involucrar de manera activa a todas esas personas, que con su presencia año tras año, han hecho posible que el festival cumpla estos cuarenta años sobre los escenarios. Aspira a ser un punto de inflexión a partir del cual el protagonismo del público tenga un papel cualitativamente superior.

El telón se levantará con una gran obra de la vanguardia europea: «La última cinta de Krapp», del Premio Nobel Samuel Beckett, bajo la dirección de Peter Stein, uno de los más destacados directores teatrales de la vanguardia europea. Será un verdadero honor poder ver sobre el escenario vitoriano a Klaus María Brandauer, Globo de Oro por Memorias de África, protagonizando este grandísimo texto, que será estreno en España.

URRIA OCTUBRE

3

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

SOPLANDO VELAS

ESPECTÁCULO-GALA | 38

9

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

KRAPP'S LAST TAPE

Klaus María Brandauer

a JAIALDIA | FESTIVAL | 4-5

10

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

CÁNDIDO

Ortzai

a JAIALDIA | FESTIVAL | 6-7

15

osteguna | jueves
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EIPIO REY

TEATRO DE LA CIUDAD

a JAIALDIA | FESTIVAL | 8-9

16

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MEDEA

TEATRO DE LA CIUDAD

a JAIALDIA | FESTIVAL | 10-11

17

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

ANTÍGONA

TEATRO DE LA CIUDAD

a JAIALDIA | FESTIVAL | 12-13

18

igandea | domingo
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

CHEFS

Yllana

a FAMILIARENTZAKO | EN FAMILIA | 50

21

asteazkena | miércoles
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

KREDITUA

Tanttaka teatroa

a ANTZERKIA EUSKARAZ | 14-15

22

osteguna | jueves
JESÚS IBAÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA
| HEGOALDE

LA PIEDRA OSCURA

Centro Dramático Nacional | Lazona

a JIM AKTUAL | 40

23

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MEASURE FOR MEASURE

Cheek by Jowl / Pushkin Theatre

a JAIALDIA | FESTIVAL | 16-17

25

igandea | domingo
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

SOÑANDO EL CARNAVAL DE LOS ANIMALES

Etcétera | El Liceu

a FAMILIARENTZAKO | EN FAMILIA | 51

28

asteazkena | miércoles
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

BEST OF YOU

La Intrusa

a DANTZA | DANZA | 18-19

29

osteguna | jueves
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MUXUA

Tanttaka teatroa

a ANTZERKIA EUSKARAZ | 20-21

30

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EL BESO

Tanttaka teatroa | 20-21

FÉLIX PETITE ANTZOKIA | IBAIONDO

CABARET CHIHUAHUA

Pabellón 6

a ESPECTÁCULO IBAIONDO | 42

31

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

DINAMO

timbre 4

a JAIALDIA | FESTIVAL | 22-23

AZAROA NOVIEMBRE

1

igandea | domingo
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

MOBY DICK

Gorakada

a FAMILIARENTZAKO | EN FAMILIA | 52

4

asteazkena | miércoles
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

ETXEKOAK

Huts teatroa

a ANTZERKIA EUSKARAZ | 24-25

5

osteguna | jueves
J. IBAÑEZ DE MATAUCO | HEGOALDE

LA PLAZA DEL DIAMANTE

Teatro Español | Bittó Producciones

a JIM AKTUAL | 41

6

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

BIANCO SU BIANCO

Compagnia Finzi Pasca

a JAIALDIA | FESTIVAL | 26-27

8

igandea | domingo
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

EL CIRCO DORADO

Teatro Paraíso - Ateliers de la Colline

a FAMILIARENTZAKO | EN FAMILIA | 53

13

ostirala | viernes
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

HULLU

Blick Théâtre

a JAIALDIA | FESTIVAL | 28-29

14

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

HEDDA GABLER

Noviembre teatro |
Centro Dramático Nacional

a JAIALDIA | FESTIVAL | 30-31

15

igandea | domingo
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

SUEÑOS DE ARENA

Borja González

a FAMILIARENTZAKO | EN FAMILIA | 54

19

osteguna | jueves
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

SIENA

La Veronal

a DANTZA | DANZA | 32-33

21

larunbata | sábado
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

DESDE BERLÍN, TRIBUTO A LOU REED

Teatro Romea Focus

a JAIALDIA | FESTIVAL | 34-35

26

osteguna | jueves
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

ATCHÚUSS!!!!

Pentación Espectáculos

a JAIALDIA | FESTIVAL | 36-37

27

ostirala | viernes
TEATRO FÉLIX PETITE ANTZOKIA |
IBAIONDO

SOLITUDES

Kulunka teatro

a ESPECTÁCULO IBAIONDO | 43

INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL

orrialdea-página 58-63

XI. HAURTZOAK

PROIEKTUA

XI PROYECTO BEBES

TEATRO FEDERICO GARCÍA LORCA
ANTZOKIA

AZAROA - NOVIEMBRE

21

larunbata | sábado

AUPAPÁ

Zig Zag danza | 56

22

igandea | domingo

FIL DE FAIRE

A suivre | 56

28

larunbata | sábado

NIDOS

Teloncillo Teatro | 57

29

igandea | domingo

NEST

Theataer de Spiegel | 57

ANTZERKIA ZABALTZEN

TEATRO ABIERTO

orrialdeak-páginas 44-48

OFF LOCAL

EL PURGATORIO

urriak 21, 22, 23, 25 de octubre,
Carmen San Esteban

FOTO

azarok 19, 20, 21, 22 de noviembre
Parasite Kolektiboa | Sala Baratza A.

BISITA GIDATUAK / VISITAS GUIADAS /
ANTZERKIARI BURUZKO SOLASALDIAK /
TERTULIAS / CLAUDIO TOLCACHIREN ANTZERKI
TAILERRA / TALLER PARA ACTORES CLAUDIO
TOLCACHIR / CARLOS PÉREZ URALDE IRRATI-
ANTZERKIAREN III. LEHIAKETA / III CERTAMEN
DE RADIOTEATRO CARLOS PÉREZ URALDE /
ARTE ESZENIKOEN VII. JARDUNALDIAK /
VII JORNADAS DE ARTES ESCÉNICAS

ABONAMENDUAK

ABONOS

a JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL


a DANTZA ABONAMENDUA
ABONO DANZA

a ANTZERKIA EUSKARAZ
ABONO TEATRO EUSKERA

a FAMILIARENTZAKO ANTZERKIA
ABONO TEATRO EN FAMILIA

a IKUSKIZUNA IBAIONDON
EL ESPECTÁCULO EN IBAIONDO

a JIM AKTUAL ABONAMENDUA
ABONO JIM AKTUAL





KRAPP'S LAST TAPE

«La última cinta de Krapp» (Alemania)

urriak 9 de octubre, 20:30 h.

Peter Steinek –antzerki eta opera zuzendari handienetako bat, Peter Brookekin batera, eta europar abangoardiaren ordezkari– Klaus Maria Brandauer (Urrezko Globo baten jabea, «Memorias de África» filmarengatik) eta Samuel Beckett Nobel saria elkartu ditu «La última cinta de Krapp» antzezlanean.

Steinek Schaubühne am Halleschen Ufer konpainia fundatu zuen mendebaldeko Berlinen; antzerki konpainia hori Alemaniako Errepublikan Federalean 60-70eko urteetan izandako antzerki berrikuntzaren eragile nagusietako bat izan zen, ikasleen protesta mugimenduan eta 1968ko Maiatzean inspiraturik.

1957ko abenduan, Samuel Beckettek Patrick Magee aktore irlandarraren ahotsa entzun zuen BBC irratiaren hirugarren katean, eta aste batzuk geroago, 1958ko otsailean, bakarriketa dramatiko bat idazten hasi zen, «Magee Monologue» izenburuaz, zeina geroago «Krappen azken zinta» gisa zabalduko baitzen.

Goi mailako interpretazioa, eszenako izen handi baten eskutik.

Peter Stein, uno de los más grandes directores de teatro y ópera, junto a Peter Brook, representante de la vanguardia europea, reúne a Klaus Maria Brandauer (Globo de Oro por «Memorias de África») y al Premio Nobel Samuel Beckett en «La última cinta de Krapp».

Stein fundó en Berlín occidental el Schaubühne am Halleschen Ufer, una compañía de teatro que fue uno de los focos principales de la renovación teatral que tuvo lugar en la República Federal alemana de los años 60-70 y se inspiró en el movimiento de protesta estudiantil y en el Mayo de 1968.

En diciembre de 1957 Samuel Beckett escuchó la voz del actor irlandés Patrick Magee en el tercer programa de radio de la BBC y pocas semanas después, en febrero de 1958, comenzó a escribir un dramático monólogo bajo el título «Magee Monologue», que se popularizó como «La última cinta de Krapp».

Una interpretación magistral de la mano de uno de los grandes de la escena.

**VITORIA-GASTEIZKO NAZIOARTEKO
XL. ANTZERKI JAIALDIAREN
INAUGURAZIOA**

**INAUGURACIÓN DEL
XL FESTIVAL INTERNACIONAL
DE TEATRO DE VITORIA-GASTEIZ**

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Peter Stein

ANTZEZLEAK
REPARTO
Klaus María Brandauer

Una producción de
Wallenstein-Betriebs
GmbH y Klaus Maria
Brandauer en Co-
producción con Stiftung
Schloss Neuhausen y
Movimientos Festwochen
der Autostadt in Wolfsburg

ESTREINALDIA
ESPAINIAN
ESTRENO
EN ESPAÑA

*Alemanez gaztelaniazko
goi- tituluez lagundua.
En alemán con sobretitulos
en castellano.*

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 15 m
24 €, 18 €

www.ysarca.com





CÁNDIDO

Ortzai (Euskadi)

urriak 10 de octubre, 20:30 h.

Gasteizen egoitza duen Ortzai taldea 2005ean sortu zen. Konpromiso artistiko eta sozial argia duten klasiko handiak zein lan garaikideak lantzen ditu, bertakoak eta nazioartekoak, eta arrakasta lortu du «De Profundis» txalotuarekin –Iker Ortiz de Zárate protagonista zelarik– eta «¿Y ahora? Eta orain?» lanarekin –Iker Ortiz de Zárate bera eta Teresa Ibáñez izan ziren protagonistak–.

Oraingo honetan askoren ustez ipuin filosofiko hoberena dena dakarkigute Principal antzokira: «Cándido». Voltaire bete-betean: ironiaz betetako komedia zorrotz horrek eszena joko liluragarria sortzen du. Cándidok uste du mundua paradisu dela, errealitatea ukatzen saiatu arren.

Voltaire inoiz baino gaurkoagoa gertatzen da, eta «Cándido» guztiz modernoa, duela bi mende idatzitakoa izan aringarririk gabe islatzen baitu oraingo egoera, eta etorkizuna zalantzan jartzen.

Fundada en 2005 y con sede en Vitoria-Gasteiz, Ortzai trabaja sobre los grandes clásicos y títulos contemporáneos con claro compromiso artístico y social, tanto en el ámbito local como en el internacional, cosechando éxitos como los alcanzados con el aclamado «De Profundis», protagonizado por Iker Ortiz de Zárate, y la obra «¿Y ahora? Eta orain?», protagonizada por el mismo Iker Ortiz de Zárate y Teresa Ibáñez.

En esta ocasión, Ortzai trae al escenario del Teatro Principal el que es considerado por muchos como el mejor de los cuentos filosóficos, «Cándido». Voltaire de alto voltaje: esta punzante comedia llena de ironía da lugar a un juego escénico absolutamente embelesador. Cándido cree que el mundo es un paraíso, aunque la realidad se empeña en negarlo.

Voltaire es, más que nunca, actual, y plena la vigencia y radical modernidad de un «Cándido» que, escrito hace más de dos siglos, retrata sin atenuantes nuestro hoy y nos cuestiona nuestro mañana.

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Iker Ortiz de Zárate

EGILEA AUTOR
François Marie
Arouet «Voltaire»

www.ortzai.com

ANTZEZLEAK
REPARTO
Teresa Ibáñez
(*como La Vieja*)
Iker Ortiz de Zárate
Silvia Martínez Tazo
Eduardo Suso
Edurne Arejolaleiba
Mateo Aguirrezabal
Marta Arizti
Urko Alegre
Ane Mendiguren

Guillermo Martín
María García
Alberto Abad
Fausto Fernández
Lorea Morlesín

ESTREINALDI
ABSOLUTUA
ESTRENO
ABSOLUTO

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m
14 €, 10 €, 5 €

a

TEATRO DE LA CIUDAD


Teatro de la Ciudad gunea Miguel del Arco, Andrés Lima eta Alfredo Sanzolen apustua da, antzerki garaikidearen

ikerketa, hausnarketa eta produkzioa bultzatzeko eta horren emaitza erakusteko asmoz sortua. Beren produkzioak erakustez gain, beste sortzaile garaikideei eta antzerkiaren balio berriei irekiko dizkie ateak.

Mendebaldeko antzerkiaren sustraietara –tragedia greko-latinoa– itzultzea da helburua, eta aldi berean, sorkuntza kolektiboan oinarritutako lanak garatzea, zeinaren edukia aldatuz joango baita. Antzerki aktore handiak protagonista direlarik, eszenaratze garaikidea eta diziplina ezberdinen uztarke-ta proposatzen dute.

Teatro de la Ciudad supone la unión en un mismo espacio de Miguel del Arco, Andrés Lima y Alfredo Sanzol, concebido como una apuesta por la investigación, reflexión, producción y exhibición del teatro contemporáneo. El proyecto, además de mostrar sus propias producciones, abrirá sus puertas a otros creadores contemporáneos y a los nuevos valores de la escena teatral.

El objetivo es volver a las raíces del teatro occidental, la tragedia greco-latina; y desarrollar en paralelo un montaje de creación colectiva cuyo contenido irá variando. Protagonizado por grandes actores y actrices de teatro, proponen una puesta en escena actual y la intersección con varias disciplinas escénicas.





EDIPO REY SÓFOCLES

Teatro de la Ciudad | Teatro de La Abadía (Madrid)

urriak 15 de octubre, 20:30 h.

«Nire patuak bere bidea egin dezala, doan lekura doala.»

Egia jakiteko beharra, patua erabat kontrolatzeko ezintasuna eta norberaren jatorriaren bilaketa dira istorio hau osatzen duten zumeak: hilketa bat ikertzerakoan, gizon batek bere aitaren hiltzailea eta amaren amorantea dela jakingo du, eta horrek giza ulermenaren mugak eta ahalmenak zalantzan jarriko ditu.

«Edipok bere handitasuna zoritxarrean oinarritzen zela jakingo du. Dena zelakoan, benetan hutsaren hurrengoa zen gizonaren istorioa da. Hiria salbatzeagatik, bere burua hondoratu zuen gizonaren istorioa. Egia jakitean argia berriro ez ikustea erabaki zuen gizonaren istorioa» ■ Alfredo Sanzol

«Que mi destino siga su curso, vaya donde vaya.»

La necesidad de saber la verdad, el imposible control absoluto del destino, y la búsqueda de su propio origen, arman la historia de un hombre que al investigar un crimen, descubre que él es el asesino de su padre y el amante de su madre, poniendo en cuestión los límites y las posibilidades del entendimiento humano.

«Edipo descubrirá que su grandeza tenía pies de miseria. Que su historia es la del hombre que lo era todo, y en realidad era menos que nada. La historia del hombre que por salvar a la ciudad, se hundió a sí mismo. La historia del hombre que al descubrir la verdad decidió no volver a ver la luz» ■ Alfredo Sanzol



EGILEA AUTOR
Sófocles (*bertsio librea / versión libre*)

ZUZENDARITZA
ETA EGOKITZAILEA
DIRECCIÓN Y
ADAPTACIÓN
Alfredo Sanzol
Un nuevo Proyecto compartido por Miguel del Arco, Andrés Lima y Alfredo Sanzol

ANTZEZLEAK
REPARTO
Juan Antonio Lumbreras (*Edipo*),
Natalia Hernández (*Sacerdote, Coro, Corifeo, Ismene, Siervo*),
Paco Déniz (*Creonte*),
Eva Trancón (*Coro, Yocasta*)

teatrodelaciudad.es

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA
1 h 20 m
24 €, 18 €, 12 €





MEDEA SÉNECA

Teatro de la Ciudad | Teatro de La Abadía (Madrid)

urriak 16 de octubre, 20:30 h.

«Oraindik ez dakizu zer den negar egitea, itxaron zaharra izan arte.»

Heldutasun beteko emakume indartsu, adimentsu eta eder batek, gizon baten maitasunagatik esan ezinezkoak egin dituenak, arima urratuko du, orain maitasuna ukatzen dion gizon horretaz mendekatzeko egingo duena azaltzeko hitzak bilatu nahian. Aitana Sánchez-Gijón ume koru batek inguratua, patuak umeak hiltzera behartzen duen bitartean.

... Medea ausardia da, Medeak esku osoa sartzen du gure zaurietan, eta gure beldurrei aurre egitera behartzen, edo hobeto esanda, gure minei, edo hobeto esanda, gure bizitzari, baldin eta mina bizitzaren seinale bada. Horregatik Medeak izutu egiten nau, baina hala ere, ezin dut begiratzeari utzi. ■ Andrés Lima

«Todavía no sabes lo que es llorar, espera a que seas viejo.»

Una mujer en plena madurez de su fuerza, inteligencia y belleza que ha hecho lo inenarrable por el amor de un hombre, desgarrar su alma para encontrar las palabras que den forma a los hechos que ejecutará para vengarse de ese hombre que ahora le niega su amor. Aitana Sánchez-Gijón rodeada de un coro de niños a los que su *pathos* le arroja a asesinar.

... Medea es atrevimiento, Medea mete la mano entera en nuestras heridas y nos enfrenta a nuestros terrores, o mejor dicho a nuestros dolores, o mejor dicho: si el dolor es signo de vida, a nuestra vida. Por eso me da miedo Medea y sin embargo no puedo dejar de mirar ■ Andrés Lima



EGILEA AUTOR
Séneca (*bertsio librea*
/ versión libre)

ZUZENDARITZA
ETA EGOKITZAILEA
DIRECCIÓN Y
ADAPTACIÓN
Andrés Lima

*Un nuevo Proyecto
compartido por Miguel
del Arco, Andrés Lima
y Alfredo Sanzol*

ANTZEZLEAK
REPARTO
Aitana Sánchez-Gijón
(*Medea*),
Andrés Lima (*Corifeo*,
Creonte, *Jasón*),
Laura Galán (*Nodriza*),
Joana Gomila (*Corifea*)

teatrodelaciudad.es

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 30 m
24 €, 18 €, 12 €

a





ANTÍGONA SÓFOCLES

Teatro de la Ciudad | Teatro de La Abadía (Madrid)

urriak 17 de octubre, 20:30 h.

«*Ez da patuak gizakiei esleitu dien zoritik ihes egingo duenik.*»

Kreonte eta Antígona. Osaba eta iloba. Neska gazte bat estatuaren ordezkaritza gorenari aurre egiten. Desoreka une bat, gizakiak «bere buruari ahalik eta estuen heldu behar» dion unea, irmotasun osoz bere identitateari eutsi behar dionean.

Ez Antigonak ez Kreontek eman dezakete amore beren funtsezko izaerari uko egingo ez badiote. Biek dute arrazoia. Biek uste dute arrazoia dutela. Biak daude beren diskurtsoak itsututa. Bi gor, bakoitza bere bazterrean. Besteak ikaratuta daude, ikusten dutelarik «hagitz erraza dela gizakia den baino gutxiago izatera makurtzea, edo den baino gehiagora igotzea, bi mugimenduak bata bestea bezain zoritxarrekoak baitira haien identitate eta aurrerabiderako» ■ Miguel del Arco

«*De la suerte que el destino tiene asignada a los mortales, no hay quien pueda evadirse.*»

Creonte y Antígona. Tío y sobrina. Una muchacha enfrentada a la máxima representación del estado. Un momento de desequilibrio en el que un ser humano «debe aferrarse de la manera más estrecha a sí mismo», atenerse a su identidad con la máxima firmeza.

Ni Antígona ni Creonte pueden ceder sin falsear su ser esencial. Ambos tienen razón... Ambos creen tenerla. Los dos obcecados en sus respectivos discursos. Sordos en los extremos... Los demás, sobrecogidos, al comprobar «cuán horriblemente fácil es que el ser humano quede reducido a menos de lo que es o transportado a más de lo que es, pues ambos movimientos son igualmente fatales para su identidad y su progreso» ■ Miguel del Arco

SOLASALDIA IKUSKIZUNA AMAITU ONDOREN [TERTULIA AL FINALIZAR EL ESPECTÁCULO]

+ INFO orrialdea-página 47



EGILEA AUTOR
Sófocles (*bertsio librea / versión libre*)

ZUZENDARITZA
ETA EGOKITZAILERA
DIRECCIÓN Y
ADAPTACIÓN
Miguel del Arco

Un nuevo Proyecto compartido por Miguel del Arco, Andrés Lima y Alfredo Sanzol

ANTZEZLEAK
REPARTO
Manuela Paso
(*Antígona*),
Ángela Cremonte
(*Ismene*),
Carmen Machi
(*Creonte*),
Santi Marín (*Corifeo*),
Silvia Álvarez (*Corifeo*),
José Luis Martínez
(*Guardia*),

Raúl Prieto (*Hemón*),
Cristóbal Suárez
(*Tiresias*)

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

teatrodelaciudad.es

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA
1 h 25m
24 €, 18 €, 12 €

a





KREDITUA

Tanttaka teatroa (Euskadi)

urriak 21 de octubre, 20:30 h. | euskaraz

Tanttaka teatroa gure erkidegoko antzerki konpainia beteranoetako bat dugu, zalan-tzarik gabe. 1983an sortu zenetik, hainbat antzerki genero landu ditu: drama, komedia, opera bufoa, umeentzako antzerkia...

Fernando Bernués zuzendariaren ukitu bereziaz eta egikera bikainaz, beti bezala, komedia dramatiko bat dakarkigu oraingoan.

Bi denboralditan Madrilen arrakasta handia lortu ondoren, «El crédito» lana oraingoan euskaraz ikusi ahalko dugu, Joseba Apaolaza eta XXXen eskutik.

2014an Andre Maria Zuriaren jaietan ikusi genuen lan hori bera, Luis Merlok eta Carlos Hipólitok antzeztuta. Bankuan mailegu txikia lortu nahi duen gizon arrunt baten istorioa kontatzen du. Ez du ez bermerik ez ondasunik, baina azken zentimoraino itzuliko duela zin egiten du. Gaurkotasun handiko lana da, norabide aldaketez eta ustekabez bete bukaeraraino.

Tanttaka teatroa es sin duda una de las más veteranas compañías teatrales de nuestra comunidad. Desde su creación en 1983 ha producido varios géneros teatrales, el drama, la comedia, la ópera bufa, el teatro para la infancia...

Siempre bajo el particular quehacer y fabulosa factura teatral de su director Fernando Bernués, regresa a nuestros escenarios con una comedia dramática.

«El Crédito», gran éxito durante dos temporadas en el cartelera de Madrid, es ahora traducida al euskera e interpretada por Joseba Apaolaza y Zuhaitz Gurrutxaga.

La obra, que ya pudimos ver en Fiestas de la Blanca 2014 interpretada por Luis Merlo y Carlos Hipólito, nos cuenta la historia de un hombre normal que intenta conseguir un pequeño crédito del banco. No dispone de avales ni propiedades, pero a cambio ofrece su palabra de honor para prometer que devolverá hasta el último céntimo. Una obra de máxima actualidad que cuenta con giros inesperados y sorpresas hasta el final.

EGILEA AUTOR
 Jordi Galcerán,
 (versión de Patxo
 Tellería)

ZUZENDARITZA
 DIRECCIÓN
 Fernando Bernués

www.tanttaka.com

ANTZEZLEAK
 REPARTO
 Joseba Apaolaza
 Zuhaitz Gurrutxaga



ANTZERKIA EUSKARAZ
 ABONO TEATRO EUSKERA

TEATRO
 PRINCIPAL
 ANTZOKIA

1 h 30 m
 15 €

prezio bakarra /
 precio único

a



MEASURE FOR MEASURE SHAKESPEARE

«Medida por Medida»

Cheek by Jowl | Pushkin Theatre (Reino Unido/Rusia)

urriak 23 de octubre, 20:30 h.

Cheek by Jowl, Londresko Barbican zentroan egoitza duen antzerki konpainia entzutetsua, lehen aldiz etorriko da Euskadira. Nazioarteko konpainia ibiltaria da, Declan Donnellan eta Nick Ormerod buru dituenak. 1981ean sortu zenetik, lan klasiko eta modernoak –Chéjov, Jarry eta Shakespeare, esaterako– antzeztu ditu mundu osoan, ingelesez, frantsesez eta errusieraz.

«Medida por Medida» gaur eguneko Errusiaren erretratu gordina da. Umorea eta seriotasuna bikain orekatuz, Shakespearek gobernuaren, maitasunaren eta justiziaren esentzia disezionatzen du, eta galdera ezerosoak egiten ditu gobernatzeko moduez eta herri-tarren eta botere faktikoen arteko harreman konplexuez.

Gure hiriarentzat aukera paregabea da munduko antzerki konpainia onenetako bat ikusteko, hainbat herrialdetan arrakasta lortu baitu, eta *Golden Mask* sarietan bost izendapen izan baititu, besteak beste, lan onenarena eta zuzendari onenarena.

Cheek by Jowl, prestigiosa compañía de teatro con sede en el Centro Barbican de Londres, visita por primera vez Euskadi. Se trata de un teatro itinerante internacional liderado por Declan Donnellan y Nick Ormerod. Desde su formación en 1981 han representado en todo el mundo grandes obras clásicas y modernas en inglés, francés y ruso de clásicos como Chéjov, Jarry y Shakespeare.

«Medida por Medida» es un retrato devastador sobre la Rusia actual. Con un perfecto equilibrio entre el humor y la solemnidad, Shakespeare disecciona la esencia del gobierno, el amor, la justicia, planteando incómodas preguntas sobre cómo nos gobiernan y la compleja relación entre los ciudadanos y los poderes fácticos.

Avalada por el éxito en varios países, nominada a cinco premios *Golden Mask* como mejor obra y mejor dirección, es una gran oportunidad para nuestra ciudad contar con una de las mejores compañías teatrales del mundo.

Errusieraz, gaztelaniazko goi-tituluekin

Barbican, London; Les Gémeaux/Sceaux/Scène Nationale eta Centro Dramático Nacional, Madrid konpainien arteko koprodukzioa.

En ruso con sobretítulos en castellano.

A co-production with the Barbican, London; Les Gémeaux/Sceaux/Scène Nationale; Centro Dramático Nacional, Madrid (INAEM).

EGILEA AUTOR
William Shakespeare

ZUZ./DIRECCIÓN
Declan Donnellan

ANTZEZLEAK
REPARTO
Alexander Arsentsev
(Duke), Yuri Romyantsev
(Escalus), Andrei
Kuzichev (Angelo),

Alexander Feklistov
(Lucio), Petr Rykov
(Claudio), Alexander
Matrosov (Provost),
Ivan Litvinenko
(Executioner), Nikolay
Kislichenko (Elbow),
Igor Teplov (Barnardine),
Alexey Rakhmanov
(Pompey / Friar Peter),
Anna Khalilulina
(Isabella), Elmira Mirel

(Mariana / Mistress
Overdone), Anastasia
Lebedeva (Juliet /
Francisca)

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

www.goldenmask.ru
www.cheekbyjowl.com

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 50 m
24 €, 18 €, 12 €

a





BEST OF YOU

La intrusa (Cataluña – Euskadi)

urriak 28 de octubre, 20:30 h.

La Intrusa arte sorkuntza garaikideko konpainia da, Virginia García eta Damián Muñoz gasteiztarrak 1996an osatutakoa; 2009an dantza alorreko *Max saria* lortu zuten sortzaile eta zuzendari artistiko horiek.

Dantza garaikidea beste diziplina artistiko batzuekin nahasten dute, hala nola musika eta ikus-entzunezkoak. Beren sorkuntzak beste lan batzuekin tartekatzen dituzte: ko-reografiak, antzerki kolaborazioak eta publizitatea. Nabarmentzekoa da, halaber, irakasle lana, estatuko zein nazioarteko eskola eta ko-reografia zentro ezagunetan.

Estatuko eta nazioarteko jaialdi eta antzoki ospetsuetan aritu dira.

«Best Of You» lanean egoera hau bizi dute: «gela erretzen ari zen haien inguruan, poliki, haien ondasun txiki guztiak erre, blai egin eta berriro erretzen hasiak ziren. Normaltasunera itzultzeko edozein aukera baliatuko zuten».

Musika eta dantza ikuskizun honetan hiru interpreteek tentsio metatuen partituran barrena bidaiatuko dute, asmo onez arindura bilatzen duten bitartean.

La Intrusa es una compañía de creación artística contemporánea formada en 1996 por Virginia García y el vitoriano Damián Muñoz, *Premio Max* de la danza en 2009, ambos son creadores y directores artísticos.

En sus trabajos interrelacionan la danza contemporánea con otras disciplinas artísticas como la música y los audiovisuales. Combinan las creaciones propias con encargos coreográficos, colaboraciones teatrales y publicidad. Destaca su tarea docente en prestigiosas escuelas y centros coreográficos nacionales e internacionales.

Sus creaciones se han representado en prestigiosos festivales y teatros nacionales e internacionales.

En «Best Of You», viven una situación en la que «la habitación ardía lentamente a su alrededor, todas sus pequeñas comodidades se habían quemado, se habían empapado y habían vuelto a entrar en combustión. Hubieran aprovechado cualquier oportunidad de volver a la normalidad».

Un espectáculo de música y danza donde los tres intérpretes viajan por una partitura de tensiones acumuladas, mientras buscan con buenas intenciones el alivio.

SORKUNTZA ETA
ZUZENDARITZA
CREACIÓN Y
DIRECCIÓN
Virginia García
Damián Muñoz

DRAMAGINTZA
DRAMATURGIA
Virginia García

laintrusadanza.com

ANTZEZLEAK
REPARTO
Virginia García
Damián Muñoz
Clara Peya

Sarea dantza zirkuituaren laguntzarekin / Colabora circuito Danza Sarea



DANTZA ABONAMENDUA
ABONO DANZA

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

55 m

18 €, 12 €, 6 €

What I want

be



MUXUA EL BESO

Tanttaka teatroa (Euskadi)

urriak 29 de octubre, 20:30 h. | euskaraz

urriak 30 de octubre, 20:30 h., 22:30 h. | castellano (*fuera de abono*)

Lorenzok hamabost urte ditu, eta umezurtegia utzi eta abegi-familia batekin bizitzera joan da, Italiako hiri txiki batera. Han, Antoniorekin maiteminduko da. Antoniok sentimenduak adierazteko zailtasunak ditu, eta ez daki nola erantzun Lorenzok erakutsitako afektuari. Elena, berari falta zaion adorea ikasleei emateko gogotsu dagoen irakaslea, horren testigu izango da. Hiru pertsonaia horiek dira maitasun, gorroto eta indarkeriari buruzko obra bikain baten protagonistak. Eta erdian, musu bat, eromena eragin dezakeen musu bakar eta sinple bat.

Parteka itzazu hiru istorio horiek pertsonaiekin, gertutik, Principaleko agertokiaren gainean.

Lorenzo, un joven de quince años, deja el orfanato y se traslada a vivir a un pueblecito de Italia, con una familia de acogida. Allí se enamora de Antonio. Antonio tiene dificultades para expresar sus sentimientos, y no sabe cómo responder al afecto mostrado por Lorenzo. Elena, una profesora deseosa de inculcar a sus alumnos el valor del que ella carece, es testigo de la escena. Esos son los tres protagonistas de esta magnífica obra sobre el amor, el odio y la violencia. Y en el centro, un beso, solo un simple beso, que puede llevar a la locura.

Comparte estas tres historias de cerca con sus personajes sobre el escenario del Principal.



ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Fernando Bernués

ANTZEZLEAK
REPARTO
Mireia Gabilondo
Ander Iurretagoiena
Haritz Morrás

www.tanttaka.com

GAZTELANIAZKO
BERTSIOAREN
ESTREINALDIA/
ESTRENO EN
CASTELLANO

ANTZERKIA EUSKARAZ
ABONO TEATRO EUSKERA

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h

15 €

*prezio bakarra / precio único
leku mugatuak / aforo limitado*

a



DINAMO

timbre 4 (Argentina)

urriak 31 de octubre, 20:30 h.

Konpainia 1999an jaio zen, jatorri eta prestakuntza desberdinetako antzerki munduko profesional talde batek osatua. 2001ean, taldeak ikerketa, entrenamendu eta erakusketak egin ahal izateko espazio propio baten beharra sentitu zuen, eta *Timbre 4* sortu, bere premien arabera.

Gaur egun, ateak ireki eta hamar urte eskas igaro direlarik, antzoki gisa funtzionatzeaz gain aktore izan nahi duten ikasleak ere hartzen ditu.

Gure hirira beren proiektu arrakastatsu guztiak ekarri dituzte: «Tercer Cuerpo», «La omisión de la familia Coleman» –Claudio Tolcachirrena–, «Emilia» eta «El viento en el violín».

Egileek hau esan dute lanaz:

«Bakarkako inprobisazioak landu genituen egun luze eta zoragarrietan, eta pertsonaia bakoitza istorioz eta gizatasunez betetzen joan zen. Gure lana istorio horiek batzea izan zen, gune komun batean agerraraztea...»

La compañía nace en el año 1999, creada por un grupo de teatristas con orígenes y formaciones diversas. En el año 2001, tuvo la necesidad de generar un espacio propio donde poder llevar a cabo investigaciones, entrenamientos y exposiciones, para lo cual construyo de acuerdo a sus necesidades *Timbre 4*.

Hoy, apenas diez años después de abrir sus puertas, no sólo funciona como sala teatral sino que durante toda la semana recibe alumnos de teatro que entrenan y se forman como actores.

Han pasado por nuestra ciudad todos su exitosos proyectos; «Tercer Cuerpo»; «La omisión de la familia Coleman» de Claudio Tolcachir; «Emilia» y «El Viento en el violín».

Sobre la obra, palabras de los autores:

«Fueron largas y maravillosas jornadas de improvisaciones solitarias donde cada personaje fue llenándose de historia y de humanidad. Nuestro trabajo fue compaginar esas historias, dejar que se revelen en un espacio común...»

**SOLASALDIA IKUSKIZUNA AMAITU
ONDOREN** [TERTULIA AL FINALIZAR
EL ESPECTÁCULO]

+ INFO orrialdea-página 47

EGILEA AUTOR
Melisa Hermida
Claudio Tolcachir
Lautaro Perotti

ZUZ./ DIRECCIÓN
Claudio Tolcachir

TESTUA ETA
ZUZENDARITZA
LIBRO Y DIRECCIÓN
Melisa Hermida
Lautaro Perotti

ANTZEZLEAK
REPARTO
Marta Lubos
Daniela Pal
Paula Ransenberg

MUSIKARIA
MÚSICO
Joaquín Segade

www.timbre4.com

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 10 m
18 €, 12 €, 6 €

a



ETXEKOAK

Huts teatroa (Euskadi)

azaroak 4 de noviembre, 20:30 h. | euskaraz

Etxekoak: Ezin da edonor etxean sartu. Hala dio legeak. Maddik Mamadou maite du. Hala dio biotzak...

«Etxekoak» antzezlanaren istorio pertsonal bate-tatik abiatzen da.

Itsasoaz bestalde maitemindu nintzen. Atzerriko lagunarekin egoteko aukera bakarra ezkontzea izan zen. Eta hor hasi zen dena: burokrazia, paper administratiboak, joan etorri zenbaezinak, elkarrizketak kontsulatuan... urtetako erokeri eta zentzugabekeria hutsa.

Esperientzia honetatik abiatuz, egungo gizar-teak eta estatuek sortu eta eraiki dituzten muga eta lege absurduen kritika egitera goaz antzezlan berri honekin. «Etxekoa/kanpoko» dikotomian gaur egun hain presente dugun inmigrazioaren gaia jorratuko dugu.

Zortzi dira zazpi. Zazpi dira sei. Sei dira bost. Bost dira lau. Lau dira hiru. Hiru dira bi. Bi dira bat. Bat da *Huts Teatroa*.

ARTEDRAMA: HUTS TEATROA

Artedrama Plataforma ekintza, drama, antzerkia eta artearen lengoaiak ikertu eta sortzeko bokazioarekin jaio da.

Artedrama Plataformaren oinarri eta labore-lurra, antzerkia eta artea esateko eta izanarazteko gure herri honek dituen hitzak eta ekintzak dira.

Los de casa: cualquiera no puede entrar en casa. Eso dice la ley. Maddi ama a Mamadou. Eso dice el corazón.

La obra «Etxekoak» parte de una historia personal.

Me enamoré al otro lado del mar. La única opción para estar con una persona extranjera era casarme. Y ahí empezó todo: la burocracia, el papeleo, las incontables idas y venidas, las entrevistas en el consulado... años de absurdos y sinsentidos.

Tomando como base esa experiencia, esta nueva obra critica las fronteras y leyes absurdas que la sociedad actual y los estados han construido. La dicotomía «los de casa / los de fuera» nos sirve para plantear el tema de la inmigración, tan presente hoy día.

Ocho son siete. Siete son seis. Seis son cinco. Cinco son cuatro. Cuatro son tres. Tres son dos. Dos son uno. Uno es *Huts Teatroa*.

ARTEDRAMA: HUTS TEATROA

Artedrama Plataforma nace con la vocación de investigar y explorar nuevos lenguajes en los campos de la acción, el drama, el teatro y el arte.

Artedrama Plataforma toma como base y tierra de cultivo las palabras y acciones propias de nuestro pueblo para decir y plasmar el teatro y el arte.

EGILEA AUTOR
Jon Gerediaga

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Ander Lipus

ANTZEZLEAK
REPARTO
Kristian Etxaluz
Javier Barandiaran
Ander Lipus
Maika Etxekopar



ANTZERKIA EUSKARAZ
ABONO TEATRO EUSKERA

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA

1 h 15 m

15 €

prezio bakarra / precio único
leku mugatuak / aforo limitado

www.artedrama.com





BIANCO SU BIANCO

Compagnia Finzi Pasca (Italia)

azaroak 6 de noviembre, 20:30 h.

Compagnia Finzi Pasca izeneko taldea Antonio Vergamini, Daniele Finzi Pasca, Hugo Gargiulo, Julie Hamelin eta Maria Bonzanigok 2011n sortutako egitura da.

Abentura honetan bat egiten dute Teatro Sunil eta Inleventas konpainien istorioek. Finzi Pasca Cirque Éloizen egindako lanagatik da ezaguna, baina Gasteizera dakarren lana oso ezberdina da.

«Bianco su Bianco» clown kutsuko antzerki ikuskizuna da, zirkuan esperientzia handia duten bi aktorek interpretatua. Emakume aktore batek eta antzerki teknikari batek kontatuko dute istorioa; teknikaria irudiak osatzen saiatuko da baldarki, eta publikoa mundu surrealista batera eramango dute irudi horiek. Oroimenaren lurraldean sartuko gara, sotiltasun eta zehaztasun handiko bi clown horien eskutik helduta. Ikuskizun honetan konpainiaren estetika muturreko soiltasunera iristen da, baina ustekabe txikiak zipriztindutako soiltasuna da.

La Compagnia Finzi Pasca es una estructura creada en 2011 por Antonio Vergamini, Daniele Finzi Pasca, Hugo Gargiulo, Julie Hamelin y Maria Bonzanigo.

En esta aventura se cruzan la historia del Teatro Sunil y la de Inleventas. Conocido por su trabajo en el Cirque Eloise, presenta en Vitoria un trabajo muy diferente.

«Bianco su Bianco» es un espectáculo teatral clownesco, interpretado por dos actores con una gran experiencia circense. La historia es narrada por una actriz y un técnico de teatro que de un modo torpe la ayuda a componer imágenes que transportarán al público a un mundo surreal. Entraremos en el terreno de la memoria dejándonos tomar de la mano de éstos dos clown dotados de una delicadeza y de una gran precisión. Un espectáculo donde la estética de la compañía se mide con el vértigo de la simpleza, una simpleza que en éste caso estará cargada de pequeñas sorpresas.

EGILEA AUTOR
Daniele Finzi Pasca

ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN
Daniele Finzi Pasca

ANTZEZLEAK
REPARTO
Helena Bittencourt
Goos Meeuwssen

Antzerkia, clown, zirkua
(*testurik gabe, ikusizkoa*)
Teatro, clown, circo (*sin texto. Espectáculo visual*)

ESTREINALDIA
EUSKADIN
ESTRENO
EN EUSKADI

JAIALDI ABONAMENDUA
ABONO FESTIVAL

TEATRO
PRINCIPAL
ANTZOKIA
1 h 30 m
18 €, 12 €, 6 €

www.finzipasca.com





HULLU

Blick Théâtre (Francia)

azaroak 13 de noviembre, 20:30 h.

Blick Théâtrek fartsa antzerki bat sortu du, hitzik gabea, gizaki eta txotxongiloen arteko nahasketa. Bi gizon eta emakume bat, hiru aulkixotan eserita, ezerezaren erdian; gizonak emakumea zaintzen saiatzen dira, eta hark ez die ulertzen. Kanpoko munduak gainezka egiten dio, eta bere buruan babesten da, izaki bixiz betetako txoko fantasiatsu batean.

